

## Aisialdi hezitzailea, etengabeko mugimendua!



- EAEko astialdi taldeetako boluntarioek 2500 plazatik gora eskaintzen dituzten ekintzak antolatuta dituzte udara honetarako
- [www.astialdiforooa.org](http://www.astialdiforooa.org) eta [www.egk.eus](http://www.egk.eus) atarietan aurki daiteke informazioa

*Bilbon, 2018ko maiatzaren 9an.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta honek koordinatzen duen Astialdi Foroak udako kanpainari hasiera eman diote. Eragileek zehaztu duten bezala, "2018ko udarako eskaintza oso zabala da, hainbat ekintza mota bideratu dira".

EGKtik, ekimen hauek aurrera eramateko "urtean zehar hainbat boluntarioek egindako lana ezinbestekotzat" jo da. "Balore hezitzailetan oinarrituta eta kalitatezko ekintzak eskaintzearen konpromisoarekin, EAEko astialdiko boluntarioek ekimen anitz burutu dituzte", azaldu du elkarten plataformak. EGK-k zehaztu duenaren arabera, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban, 16 elkarten 34 opor-jarduera jaso dira, guztira 2500 inguru plaza eskainiko dituztenak udako ekintza hauetan.

Astialdi Foroko eragileek jakinarazi dutenez, ekintza hauek ekainaren 13tik abuztuaren 30era arte egingo dira, "euskaraz, gazteleraz eta ingelesez, 3 eta 18 urte bitarteko gazteentzat". Era berean, udalekuen izaera irekia eta anitza nabarmendu dute: "Hainbat motatako planak daude, edozeinek parte hartzeko modukoak: auzoan, herrian, EAEn, Nafarroan edo Burgos bezalako hirietan; kanpaldi klasikoak, kostaldetik egingo diren kanpaleku ibiltariak edo auzolandegiak", besteak beste.

### Balioz beteriko astialdi hezitzailea

Udako ekintzak antolatzen dituzten elkarteek atzean duten pertsonen esfortzuari aipamen berezia egin nahi izan diote. Izan ere, udako ekintzak "urte osoan egindako esfortzu eta lanaren unerik gorenena" badira ere, ezinbestekotzat jo dute "urtean zehar" egiten den lana "azpimarratzea eta mirestea". Ildo honetatik, zehaztu dute eskaintza "irekia dela" eta urtean zehar murgilduta ez dauden haur eta gazteei ere ateak "zabaldu" dizkiete programa barrutik

---

ezagutzeko. Zentzu horretan, EGK-k “inguru hurbileko elkarten ekintzak aukeratzea” aholkatu du.

### Informazioa non lortu

EGK-k eta Astialdi Foroa osatzen duten elkarteek antolatutako udako ekintzen informazio guztia [www.egk.eus](http://www.egk.eus) atarian topa daiteke eta elkarte-antolatzaileen helbideak, kontakturako bideak eta datuak [www.astialdiforoa.org](http://www.astialdiforoa.org) helbidean daude bilduta.